



Abstentzioa nagusi izan da eskualdean eta ezezkoa irabazle

PARTAIDETZA ▶ Tolosaldean eta Leitzaldean %68ko abstentzioa izan da Europako bozketan

EZEZKOA ▶ Ezezkoak irabazi du herri guztietan; batz bestek %56koa izan da eskualdean ▶ 2



Ez zuten lan handirik izan mahaietan egon behar izan zutenek; argazkian, Tolosako zentro sozio-kulturaleko mahaia. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶

Hegoalde «pozik» jokoarekin, galdu arren

Femesala Elx txapeldunarekin 3-2 galdu zuen ▶ 3

ADUNA ▶

Presoen aldeko mozioa onartu dute

Presoen estatus politikoa eskatu du Udalak aho batez ▶ 4

LEITZA ▶

Jantokiko laguntzailea behar dute Haur Eskolan

Etzi eguerdira arte dago izena emateko epea zabalik ▶ 7

IBARRA ▶

Presoen egoera salatuz ▶ 6

ALEGIA ▶

Eskualdeko Gazte Eguna antolatu dute larunbaterako

Sei gaztetxe eta gazte asanbladak ekitaldiz betetako eguna eratu dute ▶ 5



Aurkezpen prentsaurrekoko irudia. NOELIA LATABURU

EUROPAKO KONSTITUZIOARI BURUZKO ERREFERENDUMA ▶

Abstentzioa %68ra iritsi da

Ezezkoak eskualdeko herri guztietan irabazi du, %56 lortuz; Orexan izan da abstentzio txikiena —%31—, eta ezezko ehunekorik handiena —%91—



Leiza. Udaletxean botoa ematen. JAIONE ASTIBIA



Ibarra. Udal geletan hautesle gutxi izan zen igandean. INIGO TERRADILLOS



Tolosa. Jende gutxi ikus zitekeen arratsaldean Gorosabelen. J.SAIZAR

JOXEMI SAIZAR

Abstentzio handia izan da herenegun Europako Konstituzioari buruzko erreferendumean Tolosaldean eta Leitzaldean. 38.799 herritar zeuden bozka ematera deituak eta horietako 26.542 ez ziren joan, hau da, %68,4. Eskualdeko herri batzuetan %75etik gorako abstentzioa izan da: Abaltzisketa, Albiztur, Alkiza, Asteasu, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Hernialde eta Larraul. Abstentzio altuena Alkizan izan da, %81. Baxuena berriz, Orexan izan da %31 besterik ez, Gipuzkoa osoko baxuena.

%56 ezezkoaren alde

Bozka ematera joan zirenen artean ezezkoak irabazi du: guztira 6.949 ez eta 4.481 bai izan ziren hautesontzietan. 399 boto zuri izan ziren. Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri guztietan ezezkoak irabazi du. %56ak ezezkoa eman du. Herri batzuetan %80tik gorako ehunekoak lortuz: Adunan, Altzon, Amezketan eta Orexan adibidez. Azken honetan %91ra iritsi zen ezezkoen ehunekoa.

Baiezkoak ehuneko handienak herri handietan lortu zi-

EUROPAKO KONSTITUZIOA ▶ EMAITZAK

Herria	Errolda	Bai	Ez	Zuria	Abstentzioa
Abaltzisketa	230	10	35	3	182
Aduna	299	9	114	5	170
Albiztur	247	18	34	4	189
Allegia	1.364	150	284	10	917
Alkiza	235	8	33	2	191
Altzo	285	13	76	0	194
Amezketeta	821	32	178	6	605
Anoeta	1.427	153	307	14	951
Areso	255	32	58	3	162
Asteasu	1.101	50	201	8	839
Baliarrain	85	6	16	0	62
Belauntza	258	17	59	0	182
Berastegi	789	54	105	9	621
Berrobi	449	27	76	3	340
Bidegoian	362	19	50	4	289
Elduain	175	18	49	0	108
Gaztelu	127	7	38	1	81
Hernialde	257	11	45	1	200
Ibarra	3.612	480	594	36	2.496
Ikaztegieta	317	50	70	2	195
Irura	871	119	168	8	576
Larraul	130	4	22	0	104
Leaburu	314	19	77	2	216
Leiza	2.472	233	520	32	1.679
Lizartza	509	33	175	4	296
Orendain	140	10	41	2	87
Orexa	72	4	45	0	23
Tolosa	14.678	2.238	2.347	174	9.895
Villabona	4.646	709	789	47	3.097
Zizurkil	2.272	308	343	19	1.595
Eskualdea	Errolda	Bai	Ez	Zuria	Abstentzioa
	38.799	4.841	6.949	399	26.542 (%68,4)

tuen: Tolosan %47, Villabonan eta Zizurkiln %45 eta Ibarra %43.

Hego Euskal Herrian eta Gipuzkoan —Espainiako datuekin konparatuz— abstentzioa eta ezezko botoa nabarmendu baldin bada, Tolosaldean eta Leitzaldean joera hori nabarmenagoa izan dela esan daiteke. Espainian abstentzioa %57koa izan da, Hego Euskal Herrian %60koa eta gure eskualdean %68koa. Ezezko botoak %23 izan dira Espainian, Hego Euskal Herrian %32 eta gure eskualdean %56.

Emaitza hauek ikusita, Europako Konstituzioa Hego Euskal Herriko herritar guztien laurdenen onepenerekin bakarrik aurrera ateratzea azpimarratu dute Hirzak kontsultatutako politikari gehienek. EAJ, PSE-EE eta PP ziren baiezkoak eskatzen zuten alderdiak eta Ezker Abertzalea, EA, EB eta Aralar berriz, ezezkoaren alde agertu dira. Hala ere, iaz Europako hauteskundeetan alderdi horiek lortutako emaitzak ez dira errepikatu Tolosaldean eta Leitzaldean. Baiezkoaren aldeko boto gutxiago lortu dituzte aipatutako hiru alderdiek eta ezezkoaren aldekoak berriz, ugaldu egin dira.

ERREAKZIOAK ▶

JOXE MARI OLARRA
EZKER ABERTZALEA



«Europa urrun ikusten da. %25 bakarrik dago alde, PSE, PP eta EAJk hori eskatuta. Ezezkoa nagusi izan da».

RAFA URIBARREN
EUZKO ALDERDI JELTZALEA



«Ilusio handirik ez da nabaritu, batez ere baiezkoaren alde egin dugunon partetik. Berotasun gutxi izan da».

ONINTZA LASA
EUSKO ALKARTASUNA



«Abstentzio altua izan da Tolosaldean eta Hego Euskal Herrian eta ezezkoak ere boto asko lortu ditu».

OSCAR RENEDO
ALDERDI SOZIALISTA



«Baiezkoak irabazi du. Abstentzioak garrantzia du, baina espero baino txikiagoa da. Tolosan alde txikia dago».

ANGEL YAÑEZ
ALDERDI POPULARRA



«Deskontzertu handia dago Tolosan eta EAEn. Deigarria da ezezkoak irabaztea eta hain parte-hartze txikia izatea».

ANTTON KARRERA
EZKER BATUA



«Gipuzkoan oso legitimitate gutxi dauka Europako Konstituzio honen herritarren %25k bakarrik onartu duelako».

PATXI ZABALETA
ARALAR



«Nafarroako eta EAek berezitasuna erakutsi dute, herri bezala jokatuta. EAJk hutsigite estrategiak izan du PP eta PSOErekin kokatuz».

ARETO FUTBOLA ▶



Hegoaldeko jokalariek, Berazubín, denboraldi hasieran. IMANOL GARCIA

Partida galdu arren, «pozik» jokoarekin

3-2 galdu du Hegoalde Femesala Elx taldearen aurka, partida orekatuan

LEIRE MONTES

2003-2004 Ligako txapeliduna izan zuen aurrez aurre Hegoalde larunbatean, Femesala Elx. 2-3 galdu zuten Tolosakoek, baina egindako jokoarekin «pozik» dira taldeko arduradunak.

Adorerik gabe zen Femesala Elx, Murtzia bere betiko aurkariaren kontra Espainiako Kopa galdu berri baitu. Hegoalde, berriz, kementsu zegoen, aurreko partida irabazteak indarra eman baitzion taldeari; gainera, aurreko denboraldian Elxi irabazi zion talde bakarra da.

Dena den, oso parekatuak izaten dira bi taldeen arteko norgehiagokak, eta asteburukoak ere oreka handikoa izan zen. «Bi taldeek partidaren erabat sartuta ekin zioten lehen zatian. Elxek gure atzeko lerroa zuzen zuten etengabe, baina tinko eutsi genien erasoari. Kontraerasoan ere atera ginen, arriskua sortuz», azaldu dute ordezkariak.

Baina, oreka hori apurtuz, Femesalakoak aurreratu ziren markagailuan, 9. minutuan. Eta bigarrena ere lortu zuten, atsedendira iritsi aurretik. Tolosarrak, hala ere, ez ziren kokildu, eta joko txukuna egiten jarraitu zuten. Hala, bigarren zatian 2-1eko sartu zuen Maider Lopezek, buruz; eta berdinaketa Isma Barriok. «Gor horiek konfiantza eman ziguten, eta orduan aritu ginen ondoen, arriskua sortuz eta aurkariari min handia eginez».

FEMESALA ELX ▶ 3
HEGOALDE ▶ 2

Femesala Elx. Amalia Hernandez, Maravillas Sansano, Alicia Morell, Vanesa Jurado, Rosa Garcia, Susana Sanchez, Beatriz Martin, Noelia Alfonso, Lorena Rubio eta Antonia Gonzalez.

Hegoalde Tolosa. Lourdes Zuriarrain, Nerea Salazar, Maider Lopez, Isa Barrio, Miriam Arana, Edurne Agirretxe, Amaia Azpilikueta, Gema Celaya, Esther Videra eta Naiara Mayo.
Golak. 1-0: Martinek (09m.); 2-0: Rubiok (16m.); 2-1: Maider Lopezek (27m.); 2-2: Isa Barriok (34m.); 3-2: Morellek (37m.).

Tamalez, Elxek hirugarrena sartu zuen: urrutitik botatako baloiak Hegoalderen defentsan jo zuten, eta atezainak ezin izan zuten ezer egin gelditzeko. Zorte txarra izan zuten ere partida amaitzeko bi segundo falta zirenean, atezainaren aurrean huts egin baitzuten.

Ettxera esku hutsik itzuli arren, egindako jokoarekin pozik dira Tolosakoak: «Txapelidunak ez gintuen beldurtu, eta haren mailan izan ginen. Futbol ona ikusi zen Elxen. Zaletasuna indartzeko moduko partida izan zen».

Asteburuan Foticos Zaragoza hartuko du Hegoalde, Berazubín, 19:00etan.

GAZTERIA ▶

DJ eta 'funky' ikastaroetan izen-ematea

Udaleko Gazteria departamenduak eta Gaztegunek antolatutako DJ eta funky ikastaroetan izen-ematea amaitzen da. Ostiralean, hilaren 25ean, hasiko dira biak, Kultur Etxean: funky ikastaroa 19:30ean, eta DJ-arena 20:00etan. 3 hilabetez emango dituzte eskolak. Funky ikastaroak 30 euro balio du, eta DJ-arenak 50. Izena emateko Kultur Etxeko informazio bulegora jo dezake, edota 943 67 03 83 telefono zenbakira deitu.

HEZKUNTZA ▶

Ikasleen sexu ikastaroaren berri Orixen

Ikasleek ikastetxean izan duten sexu ikastaroaren berri emateko, bilera antolatu dute Orixen institutuan. DBHko 3. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen gurasoak daude deituta bilerara. Gaur bertan izango da, 18:00etan, ikastetxean.

IKASTAROK ▶

Langabetuentzat ikastaroak martxoan

Tolosako enplegu bulegoan 2005erako langabetuentzako ikastaroak aurkeztu dituzte. Horietako batzuk martxoan izango dira, eta izena eman daiteke dagoeneko. Martxoaren 1etik uztailaren 30era, esaterako, erizain-laguntzaile ikastaroa eskainiko dute, 09:00etatik 13:00etara. 3tik ekainaren 3ra, C1-C gidari ikastaroa, goizez eta arratsalde. 8tik maiatzaren 17ra, Autocad eta diseinu ikastaroa izango da, 09:00etatik 13:00etara. 11tik uztailaren 15era bitarte, soldadura ikastaroa antolatu dute, 08:00etatik 14:00etara. 15etik apirilaren 30era, oinarriko informatika ikastaroa, 09:00etatik 13:00era. 15etik azaroaren 11ra, iturgintza, 08:00etatik 13:30era. Martxotik ekainera, osasun-garraio teknikari izateko ikastaroa, arratsalde. Eta martxotik uztailera, azkenik, geriatría-laguntzaile ikastaroa, arratsaldetan. Informazio gehiago bulegoan, 943 67 25 77an.

INFORMATIKA ▶

Mintegiak aste honetan KZgunean

Pablo Gorosabelgo KZgunean mintegiak antolatu dituzte aste honetan. Bihar, Adobe Acrobat Reader izango dute mintzagai, 11:00etatik 13:00etara. Etzi, ordu berean, *Lana lortu ezazu* mintegia. Eta ostiralean, ordu berean, Eustat izango dute hizpide. Informazio gehiago KZgunean (Gorosabel 34. 943 65 37 20).

ESKIA ▶

Elurretarako autobusa, bertan behera

Alpino Uzturre mendi elkarteak elurretara joateko asteburu honetarako antolatu zuen autobusa bertan behera utzi du jende gutxi eman duelako izena. Irteera Benasquera (Huesca) zen, larunbatean Llanos del Hospital inguruko iraupen eskiko pistan—Aneto mendia magalean— ibiltzeko eta igandean Plan d'Estan izeneko proba herrikoian parte hartzeko. Hurrengo batean izan beharko du.

ARETO FUTBOLA ▶

6-5 galdu du Laskorainek GSI Bilbo taldearen aurka

«Partida txarra» jokatu zuten; Saldias, Altuna (2), Zubillaga, Telletxea eta Saldias goleatzaile

L. MONTES

«Esku hutsik eta burumakur» itzuli ziren Laskorain taldekoak larunbatean Bilbotik. «Erraz eta nagusitasunez» irabazi beharreko neurketa jokatu zuten: «Sailkapeneko putzuan erdi itota» dagoen GSI Bilbo taldearen aurka jokatu zuten, eta, ezustean, 6-5 galdu.

«Norgehiagoka negargarria izan zen. Batetik, ez genuen edozein motatako lehiaketan azaldu behar den jarrera irabazlea erakutsi, eta ez ginen hiru puntuaren bila behar bezala borrokatu, puntuak azken unean izpiritu sainduaren eraginez etorriko zirelakoan edo. Eta, bestetik, are eta mingarriago oraindik, ez genuen markagailuan birritan izandako alde aprobeztatuz», diote.

Joko pattala egin arren, markagailuan aurreratzea lortu zuten horitxoek: 0-3 lehen zatiko 14. minuturako, eta 3-4 bigarren zatiko 10. erako. Bietan, ordea, bizkaitarren erantzuna etorri zen, bi zatietan berdin: Tolosakoek hiruna gol jaso zituzten lau minutu eskasetan. Bizkaitarren meritua baino laskoraindarren opariak izan ziren; hala zioen partida amaieran Iñaki Egizabal entrenatzaileak: «Barkaezina da, umetxoek azaldu ohi duten jarreraren, kontzentrazio eta lehiakortasun gabeziaren ondorioa da».

Bada, hala ere, ezer azpimarratzekorik: Eki Zubillaga jubelaren lana, esaterako. «Usabalgoo Eminem-ek gol bat sartu zuen bigarren jardunaldiz jarraian. Nazional mailan minutuak pilotatzen ari da, eta argi dago etorkizunean asko jardungo dugula haren gainean. Egun, rap edo funky kale musikarekin konpara dezakegu haren futbola, baina ziur gaude epe motzean gora egingo duela, pailazo edo antzoki musikari sinfonikoraino gutxienez».

Zubillagak, Altuna («pitxitxi ilehoriak») (2), Telletxeak eta Saldias sartzu zituzten ikastolako golak. Haiekin batera, Domentxek, Alonso, Yustos, Amatriain, Gil eta Ezkiaga kan txaratu zituen Laskorainek. Asteburuan Inter Intxaurrendoren bisita jasoko du.

ASTE BURUKO ESKUALDEKO KIROL EMAITZAK ▶

ARETO FUTBOLA

Emakum. Ohorezko Maila.
Femesala Elx-Hegoalde 3-2

1. Maila A.

Candesca Camargo-Ibarra 1-0

1. Maila B.

GSI Bilbo-Laskorain 6-5

Liga Autonomikoa

Cabo Roio-Lakunza 3-2

Nesken Liga

Ordizia-Tinta 4-0

Jubenilen Liga

Sestao-Lauburu 2-12

ESKU PILOTA

GARZIANDIA TXAPELKETA

Bengoetxea-Elizalde/

Rekalde-Yubero 22-13

Sancho Gutierrez/

Mikelperizena-Zubieta 13-22

Sanchez-Lizoain

Cerezo-Uharte 11-22

FUTBOL 7

1. Maila. Itxiera torneo.

Ibarrako GA-La Kabutzia 2-1

2. Maila A. Itxiera torneo.

Bereziartua Sag.-Lanbroa Dickens 2-3

2. Maila B. Itxiera torneo.

Bar Shanti Kirolak-Taberna Dani 2-0

FUTBOLA

Gorengo Maila.

Tolosa-Pasajes 5-2

Sailkapena ▶

1. Tolosa 52 puntu

2. Ordizia 50 puntu

3. UPV/EHU 49 puntu

4. Zarautz 43 puntu

5. Trintkerpe 40 puntu

6. Real Union B 39 puntu

7. Touring 35 puntu

Nesken Liga (igoera fasea).

Zumaia-Tolosa 0-2

Lurraldeko 1. Maila.

Aurrera (bertan behera elurrarengatik)

Tolosa B-Ostadar 0-1

Sailkapena ▶

1. Allerru 42 puntu

2. Euskalduna 39 puntu

3. Martutene 37 puntu

4. Irun 1902 36 puntu

5. Beti Ona 35 puntu

6. Astigarragako 32 puntu

7. Behobia 31 puntu

8. Vasconia 31 puntu

9. Lengokoak 29 puntu

10. Mariño 26 puntu

11. Ostadar 25 puntu

12. Roteta 25 puntu

13. Gure Txokoa 21 puntu

14. Amara Berri 19 puntu

15. Ordizia 12 puntu

16. Tolosa B 9 puntu

Lurraldeko 2. Maila. Igoera.

Danena-Munibe 2-1

Internacional-Inburre 1-1

Kopa.

Urki-Amaroz 3-3

Sailkapena (I multzoa) ▶

1. Lagun Onak 15 puntu

3. Danena 6 puntu

7. Gazteak 1 puntu

Sailkapena (II multzoa) ▶

1. Legazpiko Gazte. 9 puntu

5. Inburre 4 puntu

7. Eibartarrak 4 puntu

Sailkapena (II multzoa) ▶

1. Lasarte Oriá 10 puntu

5. Amaro 5 puntu

7. Donibane 0 puntu

Jubenilen Euskal Liga.

Eibar-Tolosa 1-1

Jubenilen 1. Maila.

Billabona-Beasain 1-5

Inburre-Oiartzun 3-5

Kadeteen Euskal Liga.

Tolosa-Alaves 0-4

ZESTA-PUNTA

ELKARTEEN ARTEKOA

Alebinak.

Goizeko Izarra 3-Laskorain 5-15/11-15 (0-2)

Infantilak.

Beotibar-Donosti 22-30

Jubenilak.

Beotibar- Akarregi 35-16

Nagusiak.

Beotibar- Gazteleku 2 35-16

ADUNA ▶ PRESOKAK

Udalak presoan estatus politikoa eskatu du

Aho batez onartu zuen udalbatzak preso politikoen inguruko mozioa

IMANOL GARCIA

Adunako Udalak, osoko bilkuran, aho batez onartu zuen euskal presoan estatus politikoa eta Euskal Herrira ekartzea eskatzen duen mozioa. «Printzipio humanitarioekin, gizaki ororen eskubide eta askatasunarekin bai eta herri bezala dagozkigun eskubideen alde gure konpromisoa irmoa

agertu nahi dugu», azaltzen dute idatzian. Beste puntu batean «euskal preso politikoen gainontzeko euskal hiritarren gisan, Euskal Herriaren hitza eta erabakia gauzatzeko bidean zuzenean eta inongo trabarik gabe parte hartzeko duten eskubidea» aldarrikatzen dute. Bestalde, «euskal presoak, euren etxe eta senide eta lagunengandik hurbil egoteko

duten eskubidea berretsiz, sakabanaketa eta isolamendu egoerak behin betiko bukatzeko» eskatzen dute onartutako mozioan.

«Benetako bake prozesu batean —jarraitzen du testuak—, Espainiako Gobernuak eta ETA erakundeak, Euskal preso politikoen arazoari heldu behar diotela, konponbide eta akordioak lortzeko borondate eta ausardiarekin». Beste puntuan, dispertsioaren inguruan aritzen da mozioa: «Udal hau, euskal presoan eta euren senideen aurka ezartzen den zigor gehitua den dispertsio politikaren aurka lan egiteko konpromisoa zehatzak hartzeko prest agertzen da».

VILLABONA ▶ HEZKUNTZA



Pianojolearen saioaren une bat. HITZA

Guraso Eskolaren saio berria bihar Flemingean

I. GARCIA

Fleming ikastetxeko Guraso Elkarteak, urtean zehar hitzaldi-mahai-inguruak antolatatu ditu, Maribel San Sebastian psikologoarekin. Hurrengo garaia *Erruduntasun sentimentua gurasoengan* izango da. Lotura izango du aurrekoare-

kin, agresibitatearen gaiarekin. Hitzaldiak bihar eta martxoaren 2an, 18:00etan, Arroako eskolan izango dira.

Bestalde, Xabier Lizaso pianojolea Fleming eskolan izan da orain gutxi. 1., 2. eta 3. mailako ikasleek pianoa zuzenean entzuteko eta musika jolasak egiteko aukera izan zuten.

iragarki laburrak ▶

Kale Nagusia, 13
VILLABONA
Tel.: 943 69 68 56
mug.:616 93 17 88



Villabona. Pisu altua igogailuarekin.
Egongela-sukaldea, 3 logela eta

bainugela. Egoera ezinhobean. Eguzkia egun guztian. 41.200.000 pezeta.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Alkiza. Txaleta lursailarekin. Kapribox. Informazio pertsonala. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Andoain. Modernoa. Kapribox zaharberritua. 70 m2. Argitsua.

Trasteleku. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Ibarra. 85 m2-ko etxebizitza salgai;

egongela, sukaldea, hiru logela eta bainugela. Kanpoaldera.

Trastelekuarekin. Bizitzera sartzeko.

33.500.000 pezeta (negoziagarriak).

Etxesagasti. 943 696856.

Ordizia. Apartamentua erdialdean.

Gutziz zaharberritua. Eguzkitsua.

Modernoa. Etxesagasti. 943 696856.

Tolosa. Zenbait pisu zaharberrituko eta zaharberritua. Informa zaitez.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Zenbait pisu zaharberrituko, zaharberritua eta eraiki berriak.

33.000.000 pezetatik aurrera.

Etxesagasti. 943 69 68 56.

Zizurkil. Txaleta. 110 m2 x hiru altuera.

2.500 m2ko lursaila. Etxesagasti. 943 69 68 56.

Behar dira. Eskaera handiagatik:

Pisuak, txaletak, baserriak, landa lursailak, hirigintzakoak... salgai edo alokairuan.

Pertsonak hezitzea eta osatzea gure erronka

JESUSEN BIHOTZA IKASTOLA

2-16 urte bitarteko hezkuntza
Villabona eta Zizurkilgo ikastola

- Euskalduna eta eleanitza
- Kalitatezko Hezkuntza
- Espereziazaduna

943 69 23 21 (Berria, 49 • Villabona)
943 69 20 58 (Txermin auza • Villabona)
943 69 12 75 (Elbarrena auzoa • Zizurkil)

billabona@ikastola.net

GUTUN@K ▶ 

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Gerontologikoa ez itxi

Astelehenetan, eguerdian, Euskal Herri plazan, ikusi nuen Tolosako Inauterietako konpartsarik ederrena. 60 bat lagun txantxo, baztuz ezinduk gurpilaulkietan, baten bat makuluaren gainean, hainbat dantza. Balkoian, sobrekamaren ordez, aldarrikapen oihala salatzen zuen *Gerontologikoa ez itxi*. Gazte izpirituko konpartsa hartan elkartasunean ari ziren gerontologikoko adin handiko pertsonak, senitartekoak, zaintzaileak eta adiskideak alaitasunari ohore eta Inauteriarri men egiten.

Inauterietako elkartasun eta alaitasun hark ukitu ninduen: bejondeizuela!... ni zahartzen naizenean ere horrela nahiko nuke; herriari bertan egotea, nire inguru naturalean, maite nauen adiskideak eta lagunak inguratuz, kaleetan parte hartzen, herriari gertatzen direnak bizitzen, ilusioz eta bizipozez... EAJk, ordea, Tolosako gerontologikoa ixtea erabaki du.

Urtarrilaren 19an, Esther Larrañagak, Gipuzkoako Aldundiko arduraduna (EAJ) erabakiaren berri eman zuen gerontologikoa bertan senitartekoekin harremanetan jarri gabe. Aspaldidanik egoki eta zuzen lanean ari den Tolosako gerontologikoa ixtea da Aldundiaren asmoa; bertan dauden lagunak, bere inguru naturalek ateratzea eta Donostiako Miramonera eramatea zentro pribatu batera.

EAJren jokabide neoliberalak bihelburuetara makurtzen du dena: zerbitzu publikoak privatizatzea eta zerbitzuen kostuak jaistera, kosta ahala kosta. Ondorioak: gure zaharren ongizate eta zoriona kolokan jartzea, seintartekoei eragozpenak jartzea, zerbitzuen kalitatea jaitea, erabiltzaileak kalteza eta bertako profesionalen lan baldintzak okertzea. Badirudi, EAJk ez duela erreparorik bere interes politikoa eta ekonomikoa gure zaharren bizitza kalitatearen gainetik jartzeko.

Gipuzkoako Aldun Nagusiak, Txabarri jaunak (EAJ), esan zuen Gipuzkoako 2004ko aurrekontuak

inoizko sozialaren zirela. Baietzaren hori, ordea, ez dator bat Tolosako eta Eibarko gerontologikoa ixteko erabakiarekin. Sozialak omen dira Gipuzkoako EAJren aurrekontuak, baina Europarekin alderatuz gero, jendarte ongizatean eta bizi kalitatean, galtzen ari gara azken urteotan. Eta Kataluniak, gaintzen du Gipuzkoa, biztanleko gastu sozialaren atal gehienetan. Kostuak jaisteko irizpidea ondo dago baldin eta zerbitzu publikoaren kalitatea murrizten ez bada; kalitatea galduz gero, gerontologikoen kasuan bezala, ez dago bat ere ondo. Bestalde, Aldundiak ez du kostua jaisteko irizpide hori beti eta kasu guztietan aplikatzen. Adibidez, lehengo legegintzalditik oraingo legegintzaldira, Diputazio-ko izendapenezko karguak pasa dira 49 izatetik 68 izatera. Eta kostua, 467.917.365 izatetik 651.035.307 izatera. Kasu honetan kostua nabarmenki igo da, beraz, ez da irizpide hori aplikatu.

Deigarria da Aldundiaren kargu horietako aholkulariak EAJko Gipuzkoako Buru Batzarreko kideak

izatea eta aurrekontu hori hamar aldiz handiagoa izatea, Giza Eskubideetarako, Enplegurako eta Gizarteratzeko Departamenduaren aurrekontua baino. Departamendu horrek aurreikusten duenean, baretik, ia 12.000 gipuzkoarri laguntza zuzena ematea (behartsuak direlako, pentsioak, subsidioak edo oinarritzko errenta dagokielako) eta, bestetik, oinarriko ekipamenduak garatzea eta hitzarmenak sinatzea elkarte, enpresa eta udalekin. Horiek horrela, jendaren artean sentsazioa da gezurretan aritu direla EAJ eta Aldundia, baina non egon da Tolosako Udala? Tolosako gerontologikoa eraginkorki defendatu ez duen udalaren alkateta, Txabarriren eta Larrañagaren alderdi berekoa izanik (EAJ), gerontologikoen aldeko manifestazioan eta itxieraren kontrako protestaldian defendazaila guztiekin batera joatea, demagogiaren inpresioa eman dezake. Hala ez balitz, Tolosako Udalak ezin du gerontologikoa ixten utzi.

INAZIO AGIRRE ARREGI
(GIPUZKOAKO AUB) ▶ TOLOS

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarralde. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Asunzio klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdia)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIARI

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
▶ Arramele-AEK: 67 12 14
▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Morant, R. Zabalarreta 1 (Tolosa). 943 6738 49
Erbiti, O. Lizarraga 7 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarralde. 687 41 00 32.
ibarralde@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

ALEGIA ▶ GIZARTEA

Gazte Eguna antolatu dute Alegian larunbat honetarako

Tolosaldeko gazte asanblada eta gaztetxeek «arazoei aurre egitea» dute helburu



Ostiralean aurkeztu zuten Gazte Eguneko egitaraua. N. LATABURU

NOELIA LATABURU

Paretak bota arren ametsak bizirik diraute. Hauxe da otsailaren 26an, larunbata, Alegian izango den Gazte Eguna Oserako Tolosaldeko gazte asanblada eta gaztetxeek aukeratu duten leloa. Amezketa, Alegia, Ibarra, Tolosako Sanblazpiko, Anoeta eta Villabonako gaztetxeek bat egin dute ekimen hau aurrera ateratzeko eta «gazte arazoei aurre eginez jai giroan egun indartsu bat» antolatzeko

helburuz. Halaber, Tolosaldeko gazte guztiei larunbatean Alegiara hurbiltzeko deialdia luzatu diete.

Goizean goiz hasiko da festa herriari. Mendi martxak, eztabaidak, bazkariak, poteoak, jokuek, manifestaldiak, afariak eta kontzertuek osatzen dute eguneko agenda. Sarrerak herri hauetako ohiko lekuetan daude salgai. Bazkaria, kontzertua eta afarirako sarrera 12 eurokoa izango da; Bazkarirako soilik 7 eurokoa; Kontzertu-

GAZTE EGUNA ▶

Tolosaldeko gazte asanblada eta gaztetxeek elkarlanean antolatuta, otsailaren 26an izango da Alegian.

EGITARAUA

10:00. Mendi martxa, AHTk Alegia inguruan kaltetuko dituen lurretatik
12:00. *Esperientzia trukaketa* kafe tertulia. Gazte talde bakoitzaren esperientziak, iragana, oraina eta geroa eztabaidagai izango dira.
13:30. Triki poteoa.
14:30. Gazte bazkaria

tuarena, berriz, 5 euro izango dira eta gaueko bokatarrena, aldi, 3 euro. Honetaz gain, kamisetak eta metxeroak ere salgai jarri dituzte, 6 euro eta euro batean, hurrenez hurren. Gazte-txetako kideek «azken aldian agintariak gaztetxeekiko darabilten jokamoldea salatze ildotan» kokatu dute egun hau eta Euskal Jai, Sorgintxulori, Algotako Gazte-xeari eta Maule-

gaztetxean. Txartelak herri guztietako ohiko tokietan izango dira salgai 7 eurotan.
17:00. Gazte joku herrikoiak.
19:00. Manifestaldia gaztetxetik abiatuko da, *Paretak bota arren ametsak bizirik diraute* lelopean, 18/98 auziko auzipetuei atxikimendua adieraziz.
20:00. Kontzertuak gaztetxean, Get Real, Izeba Pilarren ilobak, Jone, Nunbait eta Zezin taldeen eskutik.
Gauean. Afaria izango da. Menuan bokatak eta sagardoa eskainiko dira.

ko Gazte-xeari elkartasuna adierazi nahi diete, besteak beste.

19:00etan egingo duten manifestaldiak ere elkartasun kutsua izango du, izan ere 18/98 auzian auzipetutako guztiei atxikimendua adieraziko diete. Horrela, eskualdeko gaztetxe guztiek indarrak bilduko dituzten «sinesten dugunaren alde gogor egiteko».

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Sukaldari bat behar da asteburuetarako. Deitu 635 700 559 zenbakira.
Sukaldaria eta tabernaria. Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera 943 68 21 54 zenbakira.

ALOKAIRUAN

Garajea. lurre auzoan garaje itxia alokatzen da. Deitu 609 435 907 edo 665 758 774 zenbakira.

IBARRA ▶

Garagardo Festa antolatzen bilera gaur 19:30ean

Gaur Ibarako Benito Izagire kultur etxean bigarren Garagardo Festa antolatzen bilera egingo da. Talde, erakunde eta herritarren parte hartzea eskatzen da denon artean festa hau prestatzeko. Bilera 19:30ean izango da.

IBARRALDEA ▶

Ludoteka eta udalekuetarako begiraleak

Belauntzako eta Gazteluko udaletatik jakinarazten dute ludotekak eta udaleku irekietan lana egiteko begiraleak kontratatuko dituela. Lan honetarako interesa dutenek Gaztelu eta Belauntzako udaletxeetara jo beharko dute oinarriak eta instantzia eskarera hartzea edo bestelako informazioa eskuratu nahi badute. Ostegunean, otsailaren 24an amaituko da izena emateko epea.

BELAUNTZA ▶

Tutorearen bisita gaur arratsaldean KZgunean

KZgunean gaur izango du tutorearen bisita 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, gaur, 16:00etatik 18:00etara Kutxanet ikastaroa eskainiko dute, internet bidez kontu laburpenak, mugimenduak... nola kontsultatu daitezkeen ikasi ahalako da.

IBARRA ▶ POLITIKA

Elkarretaratzea euskal presoen egoera salatzeko

Bihar hasiko da herriko presoek protestaldia; ibartarrak biharko pleno berezira deitu dituzte herri ekimenekoek



Igandean Ibarako plazan egin zuten elkarretaratzea euskal presoek egoera salatzeko. I.TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

Igande eguerdian kontzentrazioarako deia egin zuten Ibarara Herri Ekimenak, euskal preso politikoaren eskubideen alde, *Eider, Ekaitz eta Minde borrokan status politikoaren alde* lemapean.

Izan ere, euskal presoak txandaka borrokaldira ari dira egiten eta bihar hasiko den 6. txandan Ekaitz Aramendi, Eider Ijurko eta Jon Mindegiaga herriko presoek ekingo diote protestaldiari Iñigo Guridi bilabonarra eta Pello Odriozola tolosarrarekin batera.

Hori dela eta, atzo egin zuten elkarretaratzea bezelako eki-

menekin jarraituko dutela azaldu zuten ekimenekoek. Gainera, bihar 20:00etan batzar berezia eskatu dute Ibarako Udalean. Batzar horretan azaltzeko dei egiten die herritar guztiei, «pisuzko arrazoiak baitituzte mahai gainean».

Bestalde, atzo irakurri zuten idatzian presoek bizi duten egoera salatu zuten. Batetik urrutia daudela eta bisitan joateak dakartzen arriskuen berri eman zuten. Baina ez dela distantzia arazo bakarra azaldu zuten; «ez dira soilik urruntze horrekin konformatzen eta baloartzera, umilatzea eta oinarrizko diren eskubideen zapaltzea da eguneroko praktika; ikaske-

tak aurrera atera ahal izateko zailtasuna eta zenbaitetan debekua, beraien artean biltzeko debekua, elikadura osasuntsu baterako debekua eta larrietan larriena, osasunerako debekua», eta «espetze bakoitzean milaka bortxaketa eta injustizia pairatu behar izaten dituztela», gehitu zuten.

Egoera hau salatzeko, euskal presoak borrokan murgildurik aurkitzen dira, sakabanaketa eta isolamendu politikoaren aurka eta estatus politikoaren aldeko borroka hain zuzen. Bihar hasi eta martxoaren 5era bitarte iraungo du hiru ibartar presoek ekingo dioten protestaldia.

IBARRA ▶

Candesa Camargoren aurka galdu zuten Ibarak

Kantabrian jokatu zuten ibartarrek liderraren aurka eta 1-0 galdu zuten

I.TERRADILLOS

Ez ohiko partida ikusi ahal izan zen larunbatean Kantabriako Camargo herrian. Izan ere, ez da ohikoa izaten areto futboleko gol bakarra sartzea norgehiagoka osoan eta hori gertatu zen Ibarra eta Candesa Camargoren aurkakoan.

Bi taldeek egin zuten kanon hartu berdinketa litzateke egokiena, baina beste behin Ibarra punturik gabe bueltatu zen etxeko taldeak irabazi baitzuen.

Paretsu ibili ziren bi taldeak lehenengo zatian eta 0-0 eko markagailuarekin iritsi ziren atsedenaldira. Gogotsu atera zen bigarren zatian Ibarako taldea, eta gauzak zer diren 0-1eko izan zitekeena 1-0eko bihurtu zen Ibarako aurka eta estatus politikoaren amaitu baitzuten jokaldia.

Eta ez zen gehiago mugituko markagailua, bere horretan amaitu baitzen partida.

Jubenilen ligan, herriz, beste behin irabazi zuten Lauburuk asteak pasa ahala ohikoa den bezala. Kasu honetan, Sestaon jokatzea egozti zitzaion ibartarrei eta etxeko taldeari 2-12ko emaitzarekin irabazi zieten.

iragarki laburrak ▶



San Frantzisko etorb. 47-behea
TOLOSA
Tel.: 943 65 50 37
Faxa: 943 65 09 44
e-maila: ernio@ernioernio.com
www.ernioernio.com

Alegia. San Joan kalean 161 m²-ko azkeneko etxebizitza salgai, bi terraza ederrekin.

Anoeta. 60 m²-ko etxebizitza. Logela, egongela, sukaldia,

bainugela. Berokuntzarekin. 192.325 euro.

Berrobi. Eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Pisu, trastelekua eta garajearekin.

Donostia. Sagues auzoan etxebizitza salgai igogailuarekin. Eguzkitsua.

Ibarra. Eraikuntza berriko bi logelako etxebizitza salgai. Garajea aukeran.

Ibarra. Euskal Herria kalearen hasieran garaje ibxia salgai.

Ibarra. San Inazio auzoan etxebizitza salgai, igogailuarekin, eguzkitsua.

Ikaztegieta. Sei etxe abikiren eraikuntza berria. Informazio pertsonala.

Irura. Duela gutxi eraikuntza oso etxe polita salgai. 3 logela,

berokuntza, eguzkitsua. Dena kanpoaldera.

Irura. Borda ikusgarria, ikusteko moduko!

Legorreta. Pisu merke, 3 logelarekin, sukaldia, egongela eta bainugela (berritua). Berokuntza. 142.440 euro!

Tolosaldea. Eraikuntza berriko etxe bifamiliar zoragarria salgai. Porxe eta lorategiarekin. Ikusgarria!

Tolosa. Alde Zaharrean hainbat etxebizitza salgai 142.440 eurotik aurrera.

Tolosa. San Esteban auzoa. 3 logela. Oso eguzkitsua. Dena kanpoaldera. Berokuntzarekin.

Tolosa. Amaro auzoan oso egoera onean dauden etxebizitzak salgai.

Tolosa. Belate auzoan hiru logela eta bi bainugela. Berritua.

Tolosa. Erdialdean azkeneko pisua terraza ederrekin. Aukera paregabea!

Tolosa. Erdialdean. 130 m²-ko etxebizitza salgai. 4 logela (bat bulego

bezala egokitua). Estreinatzeko, guztiz berritua izan ondoren.

Tolosa. Foruen etorbidean guztiz berritutako etxebizitza. Ikustekoa!

Tolosa. Nafarroa etorbidean guztiz berritutako 3 logelako etxebizitza salgai berokuntzarekin.

Tolosa. Pablo Gorosabel. 12 urte dituen eraikuntza, pisu altua, igogailu eta berokuntzarekin, garajea aukeran.

Tolosa. Iurre inguruan guztiz berritutako bi logelako etxebizitza.

Tolosa. Larramendi. Orain dela gutxi eraikuntza. Bi logela, sukaldia, egongela eta trastelekua.

Berokuntza. Ezin hobeto.

Tolosa. Larramendi. 3 logela, egongela, sukalde berritua. 2 bainugela. Igogailua.

Tolosa. Santa Klara, 111 m²-ko etxebizitza ederra, igogailuarekin,

4 logela, egongela, sukaldia, bainugela. Ikuspegi ederrak. 228.385 euro.

Tolosa. Agintari kalea. Eraikuntza berriko etxebizitza. 3 logela, egongela, sukaldia eta bainugela. Trastelekua eta berokuntzarekin.

Tolosa. Trinketen. Hiru logela eta bi bainugela dituen etxebizitza salgai.

Egongela ederrekin. Ezin hobeto!

Tolosa. San Frantzisko ibiltokian 46 m²-ko lokal komertziala.

Tolosa. Erdialdean oso ondo kokatua dagoen taberna salgai.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Taberna lokairuan.

Villabona. Larrea auzoan eraikuntza berriko etxebizitza salgai. Eguzkitsua.

Zizurkil. Ernio Bidea. Eraikuntza berria. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 bainugela. Trastelekua pisuan eta ganbara. Ezin hobeto!

LEITZA ▶ KULTURA

Riaño eta Elosegik egin dute lehen saioa

Nafarroako Bertso Txapelketako bigarren finalaurrekoa jokatu dute asteburuan Goizuetan, bertso-giro politean



Diegori eta Migel Mariri elkarrekin kantatzea egokitu zitzaizen binakako saio batean. Gaia aditu eta batek bertsoa pentsatu eta botatzen duen bitartean, bestea zain adi-adi. ARANTXA IPARRAGIRRE

JAIONE ASTIBIA

Larunbat arratsaldean jokatu zen Goizuetan, Nafarroako Bertso Txapelketako bigarren finalaurreko saioa, finalerako zuzenean Estitxu Arozena sailkatu zelarik. Gainerakoek, horien artean dira Diego Riaño eta Migel Mari Elosegik leitzarrik ere, Iruritako saioari itxoin beharko diote.

Horrela, bada, orohar saio polita izan zela iritzi zioten han bertan bildutakoek, bertso politak entzuteko aukerarekin eta giroa ere bero nabaritzuz, izan

ere Goizuetako udaletxeko aretoa jendez mukurua ageri zen, gehiengo gazte-jendea eta bertakoa zelarik.

Laugarren eta seigarren

Bi leitzarrik laugarren eta seigarren gelditu ziren saioan: Legarreta eta Ibarraren ondoren Elosegik, 383,5 punturekin, Beltzaren ondoren Riaño 363,5 punturekin. Saioan zehar nahiko ongi aritu ziren biek hala biek. Lehendabiziko aldia izateko, nahiko lasai ikusten zen Elosegik, Diego urdurixeko ze-

goen. Elkarrekin kantatzea ere egokitu zitzaizen binakakoan esaterako —drogei buruzko hitzaldi batera joandako drogazale baten (Riaño) eta apaiz baten (Elosegik) papera eginez, aritu behar izan zuten— eta oso bertso politikak bota zituzten.

Orain, hurrengo larunbatean Iruritako kultur etxean egingen den hirugarren finalaurrekoa jokatu arte itxoin eta hiru saio-etatik, punturik gehien eskuratu izanen dituzten bertsolarien artean egoteko aukerei begira daude.

LEITZA ▶ GIZARTEA

Haur Eskolan jantokiko laguntzaile postua sortu

Izena emateko epea etzi, 13:00ak arte dago zabalik; udaletxean egin behar da

J. ASTIBIA

Leitzako Haur Eskolan jantokia jarri behar dutela eta, bertan lan egiteko laguntzaile postuaren aukeraketa frogak egitekotan dira Leitzako Udalean, Cederna-Garalurreko Lan Orientazio eta Kudeaketarako Zerbitzutik HITZA igorri duten oharrean arabera.

Laguntzaile honek, «lan eta zerbitzu jakineko» kontratua izanen du, «Administrazioako E mailakoa» eta astelehenetik ostiralera, 13:00etatik 15:00-etarako ordutegian egin behar du lan. Bestalde, lanpostu horretan ariko denak, «zertifikatu eskolarra, euskararen ahozko ezagutza eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuan izena emana edukitzea» ditu bete beharreko baldintza guxtienekoak.

Horrela, bada, hauta-frogetan parte hartzeko izena emateko epea, etzi, hilak 24, 13:00etan bukatuko da, jakite-ra eman dutenez eta horretarako kurrikulua aurkeztu behar omen da Leitzako udaletxeko idazkaritza-bulegoetan, edo «han bertan bete daitekeen izen-emate fitxa bete». Horrez gain, «eskatutako titulu akademikoaren edo maila altuagoko baten» eta «Nafarroako Enplegu Zerbitzuko txartelaren» fotokopiak ere erantsi behar dira, hots langabetu edo enplegu hobekuntzako txartelarenak EGA edo balio-kideren bat duenak, horren kopia ere aurkeztu behar du.

Otsailaren 24ean bertan, hautagai guztiei iritsaraziko omen diete, frogen eguna eta lekua zein diren, edozein moduz «otsailaren 28ko asteen eginen» omen direnak, oharrean ageri denez. Honi dago-kionez, «hautagai kopuruaren arabera, egun bakarrean edo gehiagotan eginen dira frogak», ziotenez.

Edozein moduz, hautagaiek gauditu beharreko frogak, lau modutakoak izanen omen dira. Lehenengo eta behin, Euskara Froga egingen dute, EGARIK ez duten hautagaiek. Hau gauditu dutenek, eta arestiko titulu horren jabe direnek, jarraituko dute aukeraketa prozesuan, oinarrietan ageri denez, eta idatzizko frogak, elkarriketa eta kurrikularen baremazioan punturik gehien eskuratzen duena, izendatuko dute lanpostura.

Lan deialdiaren oinarrietan ageri denez, kurrikularen baremaziorako «ziurtagirien fotokopien bidez justifikatutako kontzeptuak soilik» hartutako omen dituzte kontutan, lan motarekin erlazionatutako (titulu edo diplomen jabe izatea) eta modu bereko «lan-eskarmetua izatea» baloratuko omen dituzte lantzeratu. Azken ezaugarri hau frogatzeko, «Gizarte Segurantzako 'Langile Bizia' delakoaren edo lan motarekin erlazionatutako kontratuen, lehen eta azken nominen fotokopiak», aurkeztu behar dira.

hitza

txokoa

HITZAren HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

Txartela HITZAren harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

honetan
TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak
San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK
Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR
Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

AGENDA ▶

DEIALDIK

Ibarra. Garagardo Festa antolatzeko bilera. 19:30ean, Kultur Etxean.
Zizurkil. Korrika batzordearen bilera. 19:30ean, Atxulondo kultur etxean.

ERAKUSKETAK

Tolosa. *Lurraren kolorea:* Txomin Txuekaren argazkiak Hilaren 26a arte, Aranburu Jauregian.
Tolosa. Carmelo Ortiz de Elgearen lanak Aranburu Jauregian.
Tolosa. Isabel Mujika tolosarraren koadroak Lanbroa tabernan.

HITZALDIK

Belauntza. Tutorearen bisita KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. Kutxanet ikastaroa eskainiko dute 16:00etatik 18:00etara.
Tolosa. Ikasleek jaso duten sexu heziketa ikastaroaren berri emateko bilera. DBHko 3. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleen gurasoentzat. 18:00etan, Orixe institutuan.
Tolosa. *Oinarrizko ohiturak: loa, elikadura eta esfinteren kontrola.* Susana Egiluz adituaren eskutik, 0-3 urte bitarteko haurren gurasoentzat. 15:30ean, Hirukide Jesuitinatan.
Tolosa. Kutxanet enpresak II ikastaroa: remesak, bekeak, koadernoak... Mikroenpresa eta autonomoentzat. Doan. 17:00etatik 19:00etara, KZgunean.

ZINEMA

Tolosa. *El aviador.* 19:15 eta 22:30ean, Leidorren. Ikuslearen Eguna.

Okerrena etortzeko dago

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶ Elurra eta izotza dira egun hauetako protagonistak; gaurko okerrera egingo duela iragartzen dute adituek



Leitzako sarrerak, Goizuetatik etorrita, itxura eder hau zuen atzo goizean, elurrez inguratuta. JAIONE ASTIBIA

JOXEMI SAIZAR

Lurra berotzen ari dela? Ez aurtien behintzat», zioen lagun batek. Baina, aurtengo negu hotza eta elurra lurraren beroketaren ondorioetakoa dela diote adituek.

Atzo eta herenegun elurra gertu izan genuen Tolosaldean eta Leitzaldean eta gaur itxura berbera izango dela diote meteorologia adituek. Igande arratsaldean elur dezente egin zuen Tolosan bertan. Zer esanik ez altuago dauden beste

herrietan. A-15 autobia itxita egon zen egunaren zati askotan. Elurra kentzeko makinek nahiko lan izan zuten, batez ere elurra izoztuta zegoelako. Gatz botata eta bota aritu ziren ia egun osoan zehar. Leitzaldean ere antzeko arazoak izan zituzten. Ia egun osoan Uitzira, Ezkurrara eta Gipuzkoa alderako bideak itxita egon ziren edo kateak behar ziren —Ezkurraren kasuan—. Izotzak —koila deitzen diote han— oztopo handiak sortu zituen Leitzan eta Areson.

Gipuzkoa aldean ere arazo batzuk izan ziren. Goizean Vitlabona parean N-1 errepidean kamioi batek istripua izan zuen eta ilara luzeak sortu ziren. Bidegoian eta Berastegi aldean ere —Tolosaldeko punturik al-tuenak— kontuz ibili behar izan zuten.

Gaurko prebisioak ez dira hobeak. «Okerrena etortzeko dago» esaten zuten meteorologia adituek atzo komunikabide guztietan. Alerta egoera deitu dute Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako errepi-

deetako arduradunek. Autoa ahalik eta gutxien erabiltzea aholkatzen dute eta autoa hartu behar baldin bada, gomen dio batzuk luzatu dituzte: kateak eramatea, abiadura murriztea, errepideen egoeraz informatzea, aurreraterakoan kontu handiz ibiltzea...

Temperatura baxuak espero dira gaurko. Elur asko ez omen du egingo, baina hotza eta izotza izango dira eguneko protagonistak. Bihartik aurrera eguraldiak hobera joko duela iragarri dute zerbitzu hauek.

ZORION AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Sara Otamendi (Amezket).
 Atzo 13 urte. Ondo pasa. Inhar eta Olatzen partetik.



AUPA JULEN ETA PELLO!
 Ea laster iristen den mahaiaren bueltan familia osoa elkartuko garen eguna. Aupa Pello eta Julen! Maite eta Birjinia.



AUPA ANDER!
 Helmuga gero eta gertuago dago! Besarkada bero bat, bi ahizpak.



AUPA ANDER!
 Helmuga gero eta gertuago dago! Besarkada bero bat, bi ahizpak.

HITZA, zorion agurren tartea
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzetara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
 Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!